

MUS^{NAFARROAKO}EOA

Aldi baterako erakusketa

XXI. mendea 3Dan

2013ko iraila-2014ko otsaila



Gure mende honetan errealitate birtuala kulturak berezkoa duen osagaitzat jotzen du gizarteak; horregatik, erakusketa honek hirugarren dimentsioa bereganatzen duten plastika garaikideko hainbat adibide ukigarri aurkeztu nahi dizkigu, Nafarroako Museoko bildumakoak denak, helburua izanik sakon aztertzea zer harreman duten artelanak eta kokaguneak -inguruko airea barne-, baita bolumenak eta espazioak ikuslearekin duten harremana ere, errealitatearekin eta irudikatuarekin jolasean beti.

Hormaz gaindi

Erakusketa osatzen duten lan guztiek hiru dimentsioak jorratu nahi dituzte. Lan askok hormaren mugak -eta irudimenarenak- gainditzeko asmo ageriko bat erakusten dutenez, itxura bolumetriko baten bidez zeharkatzen dituzte biak, edo inguruko espazioa barne hartzen duen proiektzio fisiko baten bidez, ikuslea artisten proposamenean parte hartzera akuitatuz, gogoetaren bitartez bederen.

Masa eta airea

Plastika garaikidean oso estua da bolumenaren eta inguruko espazioaren arteko solasa. Hutsunea, formaz den bezainbatean, airearekin parekatzen ahal da, *bete gabearekin*, eta zentzu eta esanahi eraikitzailea ere badu 20ko hamarkadaz geroztik. Aireak masa mugitu edo zeharkatzen du, hutsarteetan barneratzen, eta obraren azken esanahi metaforikoa osatzen du, halako eran non artelan hauetako batzuk hari buruz ere mintzatzen zaizkigu, modu gutxi edo aski argi batean airea iradokitzen duten objektuen bidez.

Espazio birtuala.

Errealaren eta irrealaren arteko jolasa plastika garaikidea argitzen duen faro moduko bat da. Gaur egun, eremu birtuala laborategi egokia da ez-errealitatearen ideiak sormenari eskaintzen dizkion aukerak aztertzeko. Jardun artistikoan, halere, birtuala erreal bihurtzen da azkenean, hezurmamitu daitekeelako eta gure zentzumeneren bidez hauteman dezakegulako. Espazio birtualak, fisikoak eta irisgarriak, irudizkoak ere badira, gure gogoaren bidez zeharka ditzakegulako, gogoetarako mikroespazioak bailiran, eta bolumenaren, espazioaren eta ikuslearen arteko harreman sakonak sorrarazten dituzte orobat.

**Paco Polán-ek bere *Roquebrune-Cap-Martin* bere erabilitako
*flotagailua***

"Itsasotik aterako ditut argazkiak, ontzi, txalupa edo ur gainean dagoen edozein plataformatatik, kostaldera begira. Le Corbusier ito zen hondartzara joanen naiz, bertan zuen *Cabanonaren* eta Eileen Gray-ren etxearen parera, eta gerta daiteke ni ere uretara etortzea ere erabateko porrota izatea... Abuztuan abiatuko gara, Lleidarantz, Kostalde Urdinerantz. Atzeko jarlekuan, maletategian ez baitzen sartzen, flotagailu handi bat dator gurekin, zuria eta marinel-urdina. Biribil horretan Le Corbusier hitzak idatzi ditut bitan, pintura urdina erabilia. Halaxe joanen gara, autopistan barrena seguru, salbamenduko gure flotagailu zuria daramagula auto zuri batean...

Cabanona ez da zuhaitzen artean ikusten ia. Hurbilxeago gaude orain. Etxea eta itsaso urdinak betetako espazio handi bat laukiratu dut, eta flotagailua txaluparen aurrealdetik bota, baina olatuek berehala eramaten dute eta laukitik ateratzen dute...

(Uretatik hartu ondoren) txaluparen erdiko aulkitxora igotzen naiz, goitik begiratuta enkoadraketa hobetzeko asmoz... Flotagailua berriro bota, eta segituan ateratzen da laukitik berriz ere. Hainbat aldiz egin dugu eragiketa osoa, bi argazki-film agortu arte, Fuji negatiboak ziren, 400 ASakoak... Film azkarra erabili dut baina, itsasoaren gorabeherak oso handiak dira eta ez dakit bi elementuen irudi garbia atera ote dudan; flotagailua eta etxea batera..."

Paco Polánen lekukotasuna, hemendik hartua:
CONVERSACIONES CON ARTISTAS NAVARROS: *Paco Polán*,
Iruña, Nafarroako Gobernu, 2009, 228-232 orrialdeak.